

# auto kontsumoaren xehetasuna



Autokontsumoko instalazioen fitxa



## AUTOKONTSUMOKO EGUZKI-INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOA, SARERA KONEKTATUA



Gaztela eta Leoneko Eskualdeko Energia Erakundearen eraikina (Leon)



**Instalazio mota** > Autokontsumoko eguzki-instalazio fotovoltaikoa, sarera konektatua.

**Eraikinaren titularra** > Gaztela eta Leoneko Eskualdeko Energia Erakundea - EREN.

**Eraikin mota** > Eraikina administratiboa. 07:00etatik 19:30era erabiltzen da.

**Urteko kontsumo elektrikoa** > 98.916 kWh/urte.

**Instalatutako potentzia fotovoltaikoa** > 4,2 kWp.

**Egindako inbertsioa** > 28.300,09 € (BEZa gabe).

**Aurreikusitako urteko autokontsumo elektrikoaren ehunekoa** > % 5,78 (5.725 kWh/urte).

**Urtean izango den aurrezpen ekonomikoaren aurreikuspena** > 1.081,51 €/urte  
(2012ko iraileko elektrizitatearen prezioa, puntako orduetan: 0,18891 €/kWh)


**Inbertsorea** > SOLARMAX 4200 S (4,18 kW).

**Panel fotovoltaikoak** > ISOFOTÓN IS-140/24.



**EnerAgen**

Energia Kudeatzeko  
Espainiako Agentzien Elkartea

  @EnerAgen  
[www.eneragen.org](http://www.eneragen.org)

[www.autoconsumoaldetalle.es](http://www.autoconsumoaldetalle.es)





## Instalazioaren deskribapena:

- Gaztela eta Leoneko Eskualdeko Energia Erakundearen (EREN) eraikinak 60 kW-eko potentzia dauka kontratatuta, eta urteko batez besteko kontsumo trifasikoa, berriz, 98.916 kWh/urte da (3.0A tarifa, hiru tarteko ordu-diskriminazioarekin).
- Egindako instalazio fotovoltaikoak 30 modulu fotovoltaiko inklinatu ditu (15 °, horizontalarekiko), hegoaldearekin 24 °-ko desbideratzearekin kokatuta. Moduluek, konektatzeko, 3 adar osatzen dituzte paraleloan, eta haietako bakoitzak 10 modulu ditu sailean.
- Sare elektrikoko konexioa monofasikoan egiten da hartuneko kontsumo handieneko fasera, eta soberakinak sarera isurtzen dira, 1699/2011 Errege Dekretuak jasotzen duen moduan.
- Instalazioa 2013ko maiatzaren 13an hasi zen martxan.
- Instalazio fotovoltaikoaren dimentsioetarako, honako hauek hartzen dira kontuan: moduluak (igogailuen kaxa eta eraikinaren eskailera-kaxa) ipintzeko espazioa eta haien kopurua, EREnek aurretik egindako obretatik eskura diren izakinen arabera. Hori dela eta, erosketa-kostuek ez dute izan azken urteetan izandako prezio-jaisieraren abantailarik.
- EREN eraikina dibulgazio- eta erakusketa-alorrekoa izaki, instalazioak segurtasunez bisitatzeko aukera izan behar da, DBHko, BHletako eta beste kolektibo batzuetako eskola-taldeek ezagutu ahal dezaten; hori dela eta, egitura metaliko bat egin da, bertara sartu eta bisitatu ahal izateko. Kostua inbertsioetan bilduta dago.

## Instalazioaren ekoizpen errealak:

Instalazioak urtean sortutako ekoizpen elektriko errealak (proiektuan aurreikusitako balioa 5.725 kWh/urte zen) eta eguzki-ordu piko errealak hauek izan dira (1.363,1 kWh/kWp aurreikusiak)

Urtea	Ekoizpen errealak (kWh/urte)	Ordu-pikoak (kWh/kWp)
2013 <sup>1</sup>	4.779,6	---
2014	6.533,7	1.555,6
2015	6.517,1	1.551,7
2016 <sup>2</sup>	1.480,8	---

(1) maiatzaren 13tik. (2) instalazioa apirilaren hasieran deskonektatu zen, 900/2015 Errege Dekretuak jasotakoa betetzeko.

